

<< Itzulpengintza, Interpretazioa, Zuzenketa >>

**Lurdes Auzmendi
Koldo Biguri
Karlos del Olmo
Joseba Erkizia
Xabier Mendiguren
Iñaki Zubizarreta**

Itzulpengintza, Interpretazioa, Zuzenketa

Aurkibidea:

0.- TXOSTENA NONDIK NORA	3
1.- SARRERA	3
1.1.- Aurrekariak	3
1.2.- Nazioarteko erreferentziak	6
2.- LITERATUR ITZULPENARENTZAKO LAGUNTZA SISTEMAK EUROPAN	8
3.- INTERPRETAZIOA	9
3.1.- Sektorearen egoera	9
4.- ITZULPENA IKUS-ENTZUNEZKOETAN	11
5.- ITZULPENGINTZA ADMINISTRAZIOAN	13
5.1.- Indarguneak	13
5.2.- Ahuleziak	13
6.- ITZULPENGINTZA HEZKUNTZA SISTEMAN	15
6.1. Indarguneak	15
6.2.- Ahuleziak	15
7.- HAUSNARKETA	17
7.1.- Sektoreko eztabaidagaiak, erronkak eta arrazoiak	17
7.2. Helburuak eta lehentasunak	19
7.2.1.- Itzultzaileen gainekoak	19
7.1.2.- Itzulpengintza bera	20
7.3.- Ekintza lerroak	23
7.3.1.- Proiektuak eta ekintzak epe laburrean eta bitartekoan.	23
7.3.2. – Oztopoak eta horiek gainditzeko bideak	24
KONTSULTA MATERIALAK	26

Kulturaren Euskal Plana

ITZULPENGINTZA, INTERPRETAZIOA, ZUZENKETA

0.- TXOSTENA NONDIK NORA

Itzulpengintzaren osagairik nabarmenenak aurkezten ditu txosten honek, kultura osotasunean hartu gura duen Kulturaren Euskal Planak bere baitan jasoko dituen alorren arteko lotura, zehar lerroa izateko asmoz. Irakurri ahala berehala konturatuko da irakurlea ezen txostenean hainbat idaztanka nabaritzen dela. Ez da ezari-ezarian egindako laprastada, gurata bilatutako ondorioa baizik, hainbat alorretako kideri eskatu diolako EIZIEk azpiatalak osatzeko, itzulpengintzak barne hartzen duen askotarikotasuna islatu nahian.

Partaide izan dira, alfabeto hurrenkeran:

Lurdes Auzmendi
Koldo Biguri
Karlos del Olmo
Joseba Erkizia
Xabier Mendiguren
Iñaki Zubizarreta

1.- SARRERA

Hizkuntza batetik beste batera testu mintzatuak nahiz idatziak pasatzen aritzen denaren lanbideari sarridan itzulpengintza deitzen diogu euskaraz eta beste hizkuntzetan ere, baina zehatzago hitz egin nahi izanez gero itzulpengintzaz eta interpretazioaz hitz egin beharko genuke: lehena idatzizko testuen gainean egiten denerako erabiliz, eta bigarrena ahozkoen gainekoetarako gordez, nahiz eta zenbaitetan tarteko egoerak ere izaten diren.

Beraz, txosten honetan eta hemendik aurrera Itzulpengintza eta Interpretazioa erabiliko ditugu estuki elkarri loturiko bi lanbide hauen aipamen orokorra egiterakoan eta Itzulpengintza edota Interpretazioa bereizirik bakoitza zentzu hertsian adierazi nahi dugunean.

1.1.- Aurrekariak

Interpretazioan lehenik eta itzulpengintzan ondoren, gizakiak hizkuntza eta kultura desberdinen artean egin duen bitartekaritzaren aipamenak antzina-antzinatik ageri dira eta uste baino ugariagoak dira horiei buruzko erreferentziak historian zehar. Esaterako, joan den mendeko berrogeita hamargarren hamarkadan Thieme, Hermann eta Gläserrek egindako ikerketaren arabera berrehun bibliografia-erreferentzia jaso ziren interprete eta itzultzaileei buruz, Kristo aurreko III. milurtekoetik hasita, Erdi Aroan zehar, harik eta Aro Modernoa arte.

Bistan dago idazkera asmatu gabe zegoen garaietan herrien eta kulturen arteko harremanak bazirela eta interpreteak aritzen zirela hizkuntza desberdinetako hiztunen arteko harremanak ahalbidetzen; beraz, milaka urtetan interpretazioa soilik erabili zuen gizakiak bere kideekin ideiak trukatzeko, harri-aroko ohiturak dituzten eta berriki ezagutu izan diren zenbait herri primitibotan egiaztatu ahal izan denez.

Agi denez, sumeriarrek, eta ia aldi berean egiptoarrak izan ziren idazkeraren asmatzaileak Kristo aurreko laugarren milurtekoan, baina sistema piktografiko edo ideografikoak ez ziren zehaztasun handikoak gertatzen itzulpen egokia egiteko. Asiar kanaandarren idazkera alfabetikoaren asmakuntzak hobetu bide zuen egoera hori K.a. XV. mendean.

Dena den, sumeriar eta akadiarren artean itzulpena egiten zen lekukotasunak aurkitu dira, eta zibilizazio gune horietan ez ezik, egiptoar, txinatar eta hinduen artean ere jarduera beraren aztarnak ageri dira. Inperio eta erlijio handi guztien oinarrian ageri dira interprete eta itzultzaileak hizkuntza batetik bestera aginduak, legeak, kontakizun kosmogoniko eta erlijiozkoak aldatzen zituztenak, Biblian, Koranean, testu budikoetan eta aurreragoko beste testu batzuetan nabari denez.

Gerora, greziar kulturak ere pentsamenduzko ondare oparoa mailegatu zuen antzinako zibilizazio horietatik, izan ere garai hartako Ekialde Hurbila poliglotismo nabariko gunea zen, aipaturiko hizkuntzez gainera, hurritera, ugaritera eta abar ere mintzatu eta idazten baitziren, elkarren artean itzulpenak eginez eta horretarako hiztegiak prestatuz; gainera, greziar pentsalari ugari egin zituzten ikasketak Egipton.

Erromatarren latinezko kultura neurri handi batean testu grekoetatik itzulpenak eginez eraiki zen eta gerora arabiarrek Indiatik Iberiar Penintsula arteko herriak beren kultura musulmanaren baitan hartu zituztenean, berriz ere itzulpengintza ernalbide garrantzitsua gertatu zen iraganeko kultura klasikoa berreskuratzeko eta sortzen ari zen Erdi Aroko Europa berria eraiki eta aberasteko, Toledokoa bezalako itzulpengintza-guneak bultzatuz.

Latinetik hizkuntza erromantzeetarako iragaitzan eta mundu greko-latindarreko klasikoen itzulpengintzan oinarritu zen Errenazimenduan urrats berri bat egin zen itzulpengintza zehazteko eta haren inguruan lehen gogoeta sistematikoak abiarazteko Juan Luis Vives, Etienne Dolet, Martin Lutero eta abarren eskutik, inprenta asmatzeak jatorrizko testuak finkatzeko eskaini zuen aukerari esker.

Testuinguru horretan, euskaldunok geure batzarretan interpretazioa erabili izatek lehenbiziko testu itzulua sortzera igaroko gara Joanes Leizarragaren *Jesus Christ gure iaunaren testamentu berria* (1571) argitaratuz.

Urtealdia	Zenb.abs.	Itzulpena (%)
1545-1699	6	16,6
1700-1875	102	35,2
1876-1935	148	13,3
1936-1975	363	22,3
1976-1994	3.771	36,48
Torrealdai, Joan Mari. <i>Euskal Kultura Gaur. Liburuaren Mundua</i> , 1999.		

Harrezkero itzulpenaren presentzia oso nabarmena, inguruko erdaretan baino handiagoa izan da euskal liburugintzan lauki honetako datuek adierazten dutenez, nahiz eta itzulpengintzari buruzko gogoeta sistematikorik egin ez den XX. mendearen bukaera aldera arte, izan ere Manuel Larramendi, Agustin Kardaberaz, Joan Antonio Mogel, Joan Inazio Iztueta eta abarrek egindako ekarpenak ez dira iristen maila horretara, eta Bonaparte Printzeak eragindako itzulpenak dialektologia sakontzea areago zuten helburu, itzulpengintza eta hari buruzko pentsamendua garatzea baino.

Hala ere, XX. mendearen lehen herenean itzulpengintza literarioa indartzen hasten da, nola euskarazko testuak erdaratuz, hala erdarazkoak euskaratuz, eta hizkuntzaren garabidean itzulpengintzak duen garrantzia aitortzen zaio lehen aldiz; sortzaile gehienak itzultzaile ere badira eta ordu arteko testu itzuli erlijiosoen kopurua orekatzen hasten da bestelako testu pragmatiko eta literarioaren mesedetan. Obra klasikoak eta modernoak euskaratzen dira lehen aldiz genero guztietan eta testu didaktikoetarako lehen hurbilpenak egiten dira.

Mendearen bigarren herenean, gerratearen eten traumatikoaren ondoren euskal kultura suspertzen hastean, berriz ere itzulpengintzak protagonismoa hartzen hasi zen eta belaunaldi berrien eta ikastola-mugimendua sendotzearekin genero didaktikoa, kontsulta liburuak, bereziki haurrentzakoak, ugaldtu ziren itzulitakoen artean.

Baina hirugarren herenean ekin zitzaion lehen aldiz Euskal Herrian itzulpengintzaren azterketa eta irakaskuntza sistematikoari ikastaroak antolatuz (Arantzazu, Arrasate, Uztaritze) eta Martuteneko Itzultzaile Eskola Euskaltzaindiaren ekimenez 1980an sortuz, lehenik, eta Gasteizko IVAPen Itzultzaile Eskola (1986) eta Itzulpen Zerbitzu Ofiziala (IZO) sortuz.

Autonomia Erkidegoan eta gero Nafarroako Foru Komunitatean Administrazio elebidunak, euskarazko irakaskuntza hedatzeak, komunikabide euskaldunek (irratia/telebista, aldizkari eta egunkaria) ugaldtu egin zuten itzultzaileen eskaera eta gradu ondoko itzulpen-masterrak antolatu ziren Deustuan eta Gasteizen. Halaber, SENEZ itzulpen-aldizkaria eta EIZIE elkartearen erreferente bihurtu ziren ekarpen traduktologikoetarako eta “Literatura Unibertsala” eta “Pentsamenduaren Klasikoak” eta abar egitasmoak sortu eta abiarazteko.

Interpretazioari dagokionez, zerbitzu horrek ere ia badu mende laurdeneko bizitza eta profesionalizatzea, nahiz eta oraindik ez duen lortu euskal gizartean eta kulturaren behar duen tokia eta protagonismoa izatea.

Berriki antolatu du EHUak Gasteizko campusean itzulpengintza eta interpretaziorako karrera eta laster irtengo da prestakuntza unibertsitarioa duen itzultzaile eta interpreteen lehen promozioa.

Historiari eta nazioarteari begiratu bat emanda, aitortu beharra daukagu berandu samar sartu garena itzulpengintzan eta are beranduago horri buruzko prestakuntza eta hausnarketa sistematikoaren sailetan, baina kontuan hartzen badugu Euskal Herrian bertan hiru hizkuntza (euskara, gaztelania, frantsesa) bizikide direla eta mundurako gure proiektzioak ingelesa ia ezinbesteko bihurtzen duela orain arte baino askoz arreta

handiagoz aztertu, hornitu eta bideratu beharko genituzke Itzulpengintza eta Interpretazioa, erakundeen, unibertsitatearen eta EIZIEren arteko lankidetzarekin.

1.2.- Nazioarteko erreferentziak

Dagoeneko ikusi dugunez aurreko mendeetan eta nazioartean, oro har, itzulpengintzak eta interpretazioak bizitza luze eta oparoa izan dute herrien eta kulturen arteko harremanetan eta egoera hori areagotuz joan da globalizazioaren ondorioz herrien arteko harremanak estutuz joan diren heinean.

Horregatik, ez da harritzekoa XX. mendeari “itzulpengintzaren mendea” deitu izana, izan ere testu idatzien eta ahozkoen mailan aurreko mendeetan ez bezala ugalduta baitira joan den mendean jarduerak kulturen artean gero eta ugariago sortzearen ondorioz.

Lehen mundu gerraren ondoren bereziki Europan nazioartekotzen hasi ziren harreman politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen joera areagotu egin zen bigarren mundu gerraren ondoren, eta gizatalde desberdin arteko tarteak gainditzeko asmoarekin UNO eta UNESCO sortu zirelarik, parez pare herrialde desberdinen arteko komunikazio-eskaerak behar zituen itzulpengintza- eta interpretazio-zerbitzuek FIT (Nazioarteko Itzultzaileen Federazioa), pixkanaka estatu gehienetan dauden itzultzaileen eta interpreteen elkarteak bere baitan hartuz joan dena. Egoitza soziala Parisen eta administrazioa Montrealen dituen erakunde honek aurreko beteko dituen 50 urte eta kontinente guztietako itzultzaile-elkarteak ditu bere baitan. *Babel* aldizkaria da bere organo ofiziala; halaber, garrantzizkoa da *Métra* aldizkari kanadarra ere, izan ere biek ematen baitute traduktologiaren eta itzulpengintzaren inguruko informazio zehatz eta ugaria. Europako Itzultzaile Literarioek beren elkarteak dute: CEATL (Conseil Européen des Associations de Traducteurs Littéraires) 20 herrialdeetako 24 elkarte bere baitan dituenak.

Espainiar estatuari dagokionez APETI (Asociación Profesional Española de Traductores e Intérpretes) da elkarte nagusia, 1954an sortua. AICE Espainiako Konferentzia Interpreteen Elkarteak.

Nazioarteko egoera horrek itzultzaile eta interpreteak sistematikoki prestatu beharra ekarri zuen, eta ondorioz Itzultzaile eta Interprete Eskolak sortu dira Suitzako Genevan hasi eta Europa, Amerika eta Asiako unibertsitate nagusi gehientsuenetan. Horien artean aipamena merezi dute Paris, Kolonia, Mons, Manchester, Mosku eta Montrealekoek, besteak beste. Espainiar estatuari dagokionez, autonomia-erkidego ugaritan sortu dira eskola eta fakultateak eta horien artean Bartzelona, Salamanca eta Granadakoak dira nabarmentzekoak.

Aldi berean itzulpen-teoria edo traduktologian urrats sendoak egin dira Vinay-Darbelnet, Eugen Nida, J.C. Catford, A. Berman, A. Fedorov, James S. Holmes, V.N. Komissarov, A. Ljuskanov, P. Newmark, Störig, Wilss, Toury... eta Itzulpen Automatikoan (IA) eta Ordenagailuz Lagunduriko Itzulpenean (OLI). Gaur egun munduan itzulpengintza pragmatikoa da nagusi (testu komertzial, juridiko eta teknikoena), eta komunikabide eta literaturako testuenak eragin sozial handia badu ere ehunekotan askoz kopuru txikiagoa eratzen du. Bestalde, datu-base erraldioen eta teknologia berriei esker itzultzaileek banaka lanean aritzetik ekipo eta enpresatan

integraturik jardutera pasatu dira orrialde kopuru handiak era koordinatuan itzuliz, nazioarteko erakunde eta multinazionalen premiei erantzuteko.

Bigarren mundu gerraren ondoren eta Nurenbergeko epaiketan lehen aldiz erabili zen aldi bereko interpretazioa eta alor askotan ugalduz joan den esan osteko interpretazioa ere, gero eta gehiago erabili dira eta gaur eguneko mundua ulertezina litzateke zerbitzu horiek gabe.

Europako Batzordeak dauka une honetan munduko itzulpengintza-zerbitzurik handiena (DGT), geografikoki Brusela eta Luxemburgen artean banatua, 1.300 hizkuntzalari eta 500 idazkari eta administratibokoa, mundu guztian barreiatuiko beste *free-lance* itzultzaile askoren zerbitzuak ere baliarazten dituelarik, hamaika hizkuntzaren artean zubiak ezartzeko.

2.- LITERATUR ITZULPENARENTZAKO LAGUNTZA SISTEMAK EUROPAN

Herri bakoitzak bere sistema dauka, baina gehientsuenak bat datoz batez ere beraien hizkuntzetatik besteetarako itzulpenak laguntzeko orduan.

ESPAINIA:

Espanian, adibidez, Kultura Ministerioak laguntzak ematen dizkie egile espainiarren literatura edo zientzia liburuak (Espainiako edozein hizkuntza ofizialetan argitaratutakoak) itzuli nahi dituzten Espainiako eta atzerriko argitaletxeei (gehienez ere itzulpenaren kostea adinakoak izaten dira laguntzak). Atzerriko hizkuntzetara itzultzeko izaten dira.

Bestetik, Kultura Ministerioak Espainiako hizkuntza ofizialetan idatzitako liburuak hizkuntza horietako batetik bestera itzultzeko dirulaguntzak ere ematen dizkie Espainiako argitaletxeei.

Aldiz, ez du ematen laguntzarik atzerriko literatura Espainiako hizkuntza ofizialetara itzultzeko.

EUROPAKO BATASUNA:

Urtero, laguntza-deialdia egiten du liburuen itzulpena sustatzeko, Europako edozein hizkuntzatatik edozein hizkuntzara (beti ere hizkuntza ofizialak). Argitaletxeek eskatu behar dituzte, eta gutxienez lau proiektu aurkeztu behar dituzte; hau arazo handia izan daiteke euskara bezalako hizkuntza txikietako argitaletxe txikientzat, ez baita normala izaten argitaletxe batek lau liburu euskaratzea urtean.

BESTE ERA BATEKO LAGUNTZA SISTEMAK:

Alemaniak, Herbehereek, Danimarkak eta herrialde eskandinaviarrek sistema osoagoak daukate oro har literatura eta, bereziki, itzulpen literarioa babesteko. Kasu batzuetan, halako fundazio bat dute, idazle eta itzultzaileentzako eta argitaletxeentzako laguntzak banatzeko (laguntza horiek ez dira soilik liburuak argitaratu edo itzultzeko, baina baita ere beka modukoak lan-egonaldiak edo hizkuntza-ikastaldiak egiteko, literaturari edo itzulpenari buruzko ekintzak, biltzarrak edo ospakizunak antolatzeko, sortzaileentzako pentsio osagarriak, etab).

Herrialde eskandinaviarrek, gainera, liburu idazle eta itzultzaile guztiek halako konpentsazio bat jasotzen dute, liburutegi publikoetako maileguen ordainetan; diru hori, sortzaile bakoitzarentzat ez ezik, herrialde horietako idazle eta itzultzaile elkarreentzat ere bideratzen da.

Sistema hauek interesgarriak dira idazle eta itzultzaileentzat, zuzenean beraiek eska ditzaketelako laguntzak edo bekak, argitaldarien bitartekotzaren beharrik izan gabe; beraz, ez dira soilik literatura babesteko, baizik eta baita sortzaileei zuzenean laguntzeko ere. Oso sistema aurreratua da, bestalde, sortzaileen seguru sozialaren osagarri modukoa ere badelako.

3.- INTERPRETAZIOA

3.1.- Sektorearen egoera

Planaren helburuetako bat kultura herritarren esku jartzea izanik, hau da, hizkuntza ofizialen erabilera kultur ekoizpenean areagotzea, esan ere daiteke itzulpengintzak berak adinako eragina edo handiagoa eduki dezakeela interpretazioak.

Alegia, euskal itzulpengintzaz hitz egiten denean nagusiki euskarara egiten den itzulpenaz ari gara, hori delako jarduera honetan nagusi: euskaltasuna eta arau-dekretuekiko betekizunari erantzuteko gaztelera sortu eta euskarara itzultzen da, sarritan eta sarriegitan itzulpen horien eraginkortasuna hutsaren parekoa delarik. Hutsaren parekoa, dudarik gabe eta besteak beste hizkuntza finkatzeko, ikerketetarako eta abar balio dezakeelako.

Benetan euskararen erabilera sustatu nahi bada, hemendik kanpora ere euskara maite eta erabiltzen dugula erakutsi nahi badugu, bada alor bat erabat abandonatuta dagoena, baina oso kontuan hartu beharrekoa: euskararen erabilera publikoa. Euskal agintari, politiko, goi kargudun eta beste askori sarritan entzuten dizkiegu euskararen aldeko hitzak, baina gehienetan horiek ere gaztelera esanak. Horixe da arazoa, euskara ez dela hitz egiten, ez hemengoak biltzen diren jardunetan, ez eta hemengoak kanpokoekin biltzen direnetan ere. Zertan esanik ez dago, sarri bai sarri Kultura berba aho betean darabiltela, euskaldunari kultur produktu-ekintzak euskaraz jasotzea eragozten zaio, edo euskal sortzaileari nonahi euskaraz azaldu ahal izatea, jakinda entzuleek mezua ulertuko dutela, ondo jasoko dutela.

Lehenik, beraz, arazo hori gainditu behar da, legeak eta arauak ematen dituztenetatik hasi, betearazi behar dituztenetatik pasatu eta hizkuntzaren kontzientzia dugunok euskarari merezi duen tratua emanaz. Horren ondoren etorriko da euskaraz ez dakitenekin elkar ulertzeko interpretazioaren beharra.

Ikusten da, eta beti ere interpreteon ikuspegitik, euskararen erabilerak kontu hauetan atzera egin duela azken urteotan. Gogoratzekoa da, esate baterako, Euskal Mundu Biltzarra egin zenean orain 20 urte hainbat eta hainbat batzarretan izan zirela hitzaldiak euskaraz. Urte haietan jardun politiko asko entzuten ziren Legebiltzarrean euskaraz, berdin beste hainbat udaletxetan, eta abarretan ere. Egun politikarien artean ez bairik gabe gaztelera da nagusi, eta biltzarrak egiten direnean normalean Euskararen Normalizaziorako Legeak bermatzen duen bi hizkuntzen erabilera errespetatzeko aitzakiarekin euskararako interpreteak jartzen dira, hori administrazioak babesturiko jardunaldietan, alor pribatuak eratzen dituenetan euskara erabili behar den kasuan bakarrik behar izaten gaituzten bitartean.

Esan gabe doa euskararako interpretazioak, idatzizko itzulpenen kasuan bezalatsu, eraginkortasunik ez duela izaten, ez bada entzule iparraldeko euskaldunak daudenean. Alegia, hitzaldiak gaztelera direnean mugaz alde honetako euskaldun elebidunek ez dute euskararako itzulpenik behar hizlariari ulertzeko. Eskubideak errespetatu behar dira, noski, baina euskaldunen hizkuntzarekiko kezka norabide horretan elikatzea baino hobe litzateke euskaltzale horiei euskaraz zuzentzea, eta ez dakitenei erdarara itzultzea.

Guzti honetaz arduraturik eta kezkaturik, EIZIE joan den udaberrian Euskara Sailburuordetzarekin jarri zen harremanetan euskararen erabilera publikoa sustatu eta erabilera hori ahalik eta modurik zentzukoenean egiteko zenbait pauso ematea proposatu asmoz.

Lehen harremanak eman du bere fruitua, eta Elkarateak protokolo bi prestatu ditu, Jaurlaritzarekin batera beharrezko lekuetara helarazi eta bete daitezen lortzeko.

Ezin uka daiteke, jakina, interpretazio tresnak eta interpreteen lana ordaintzeak diru kostu nabarmena dakarrenik. Baina, bestalde, proposamenen atalean ikusiko den moduan, itzulpen politika definitzeaz batera, gertakari publikoetarako guneak itzulpen sistemez hornitzeko plan batek munduko hizkuntz eta kultur askotarako moldatuko luke Euskal Herriko kultur ekoizpena.

4.- ITZULPENA IKUS-ENTZUNEZKOETAN

Arlo asko ditu ikus-entzunezkoak: zinema, irratia, telebista, internet...

Eta espezialitate asko itzulpenak arlo horietan: interpretazioa, zuzenketa, itzulpena *sensu stricto*, egokitzea, azpidaztea...

Oso urria izan da eta da interpretarien presentzia gure irradi-telebistetan, eta ez premiarik ezean, euskara alde batera aise utzi eta uzten delako baizik.

Irratietan ez dago eta ez da izan itzultzaile lanpostu berezirik. Nork bere saiorako itzuli, beharrik badu eta komeni zaion arabera, eta kito.

Telebistan ere antzeko zerbait, berezko lanean.

Zuzentzaileak ere ez dira ugari: zazpi edo zortzi gehienez jota, telebistan eta bikoizketa etxeetan banatuak.

Azpidazteari dagokionez, izan ziren garai hobeak, baina gaur egun aurrekoen parean ibiliko da, ziur asko.

Itzulpena eta egokitzea oparoago izan dira, batez ere telebistari esker, izan ere telebista sortzerakoan ezin izan zen bikoizketa alde batera utzi. Berez, hizkuntza normalizatuetan, zinemari esker hasi zen bikoizketa, baina gure artean ez da hala izan, zinema aretoetatik urrun egon baita euskara.

Bikoizketari heldu baino lehen, eta goian aipatu dugunez, nabarmentzekoa da hemen ere Interneten garrantzia.

Bikoizketak bildu ditu gure ikus-entzunezkoen mundu txikian itzultzaile gehien. Artean euskaraz urratu gabeko telebistaren bideari ekin behar eta gogoz hasi ginen uholdeka zetozen film, marrazki bizi, dokumental eta telesailak (gazte eta helduentzakoak) euskaraz bikoizten.

Hasierako urteetan 1.500 bat ordu bikoizten ziren urteko, hiru etxeren artean (bada laugarren etxe bat orain), baina 1994tik atzera murrizten joan da ordu kopurua urtetik urtera: 500 ordu eskas bikoizten dira orain ETB 1erako. Garai batean 150 filmetik gora ere bikoiztu ziren urtean; gaur egun ez dira 25era ere iritsiko.

Horrek guztiak eragin zuzena izan du itzultzaileengan: ehunetik gora izandako urteetatik hogeita bostera-edo murriztu dira. Itzultzaile asko eta onak ibili dira bikoizteko lanean, idazle eta liburu-itzultzaile famatuak tartean. Beharrik oraino ere jarraitzen dutenak maila onean ari dira, baina on asko joan dira, eta gehiago ere joateko arrisku latza dago, beste sail batzuetan lan egitera; izan ere, ez da ordu kopurua murriztu bakarrik, tarifak ere izoztu egin dira azken zazpi urteotan. Beste sailetakoa itzultzaileen aldean askoz ere gutxiago kobratzen dute. Kontuan hartu behar da, gainera, bikoizketan dabilena ez dela itzultzaile hutsa. Itzultzaile-egokitzaile esaten diogu. Hizlarien ezpain mugimenduak eta esan beharrekoaren luze-zabala kontuan izanda egokitzen du testua hizkuntza batetik bestera.

Denok dugu atsegin kalitateaz mintzatzea, eta EITBen ere halaxe dihardute beti. Lehentxo azalduak ote dira baldintza egokienak kalitatea eskatzeko? Eta zer esanik ez, denok aipatzen dugu ahoa betean lehenasun kontua. Zein da garrantzitsuago, zein eraginkorrago, apaletan gordeko den itzulpena ala milaka laguni iritsiko zaiena egunero-egunero?

Telebistarako bakarrik ez, zinema aretoetarako eta DVD edo bideoetarako ere bikoizten da lau etheen artean, baina ez da, ziur asko, 40 ordura iritsiko urtean bikoizten dena.

Hezkuntzan eta irakaskuntzan eginiko aurrerabidea kontuan harturik, kezkatzekoak dira benetan itzulpenaren abiadura motela zinema aretoetan eta DVD edo bideoetan, eta atzerabidea telebistan. Euskara biziberritzeko planean erabilera izan da eta da arazo nagusietako bat, denontzat kezagarria. Noiz demontre ikasi behar dute Kultura Sailekoek zenbateraino diren garrantzitsu ikus-entzunezkoak euskararen erabilera sustatzeko?

Astean 200 bat film edo gehiago ikusteko aukera dugu telebistetan. Euskaraz bat edo bi. Zinema aretoetan ere beste hainbesteko aukera izango dugu gutxi gorabehera. Euskaraz batere ez urteko aste gehienetan. Badugu zinemaldi eder bat ere, mundu zabalean ospetsua. Zer bikoizten da euskaraz, edo azpidazten?

Noiz hasi behar dugu, batez ere agintariak, euskararentzako leku pixka bat zabalagoa eta duinagoa eskatzen, hemen diharduten ikus-entzunezkoen etxe gutzietan, beren telebistetan, zinema aretoetan eta DVD edo bideoetan?

Euskarak prestigio pixka bat hartzen ez badu mundu horretan, zail da oso euskararen erabilera aurrerabidean jartzen.

Eta jakina, Kultura Sailak zuzenean bere esku duen etxean ere, aztertu beharra dago zein bidetatik doazen. Egokia ote da astean film bat edo bi ematea, eta gazte zein helduentzako telesail bakar bat ere ez ematea? Oso ondo dago haurrena zaintzea, eta hor asmatu dutela aitortu behar. Baina gauzatxo bat ahaztu bide zaie: haurrak hazi egiten dira. Belaunaldi arteko etenaldi larria dago. Hamahiru edo hamalau urte bete arte ETB 1 pizten dutenek, marrazki biziak ikusteko, gero ere jarraitu behar lukete pizten, euren gogoko telesailak eta filmak ikusteko, nik uste. Garai batean eman zituzten arrakasta handiko telesailak, baina lauzpabost aldiz errepikatu eta akabo, bidea moztu zuten, berriak eta egokiak eman orde. Filmekin gauza bera egin zuten. Bazen plan bat astean hiru edo lau film ondo hautatuak emateko, baina bidea moztu eta agur Ben-Hur!

Eskasa da kopuruz itzulpengintza ikus-entzunezkoetan; hutsaren hurrengoa, egia esan. Hor dauzkagu ehunka profesional ongi trebatuak (itzultzaileak eta haien lanei ahotsa jartzen dietenak) etxean mutu, euskara biziberritzeko antzu. Noiz jabetu behar dugu bikoizketaren garrantziaz, euskarak Lizardiren *Amets-Bideetan* barna aurrera egin dezan, mundura zabaldurik, gure kultura aberasten?

5.- ITZULPENGINTZA ADMINISTRAZIOAN

5.1.- Indarguneak

- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan gaur egun 200 itzultzaile inguru ari dira lanean.
- Plantilakoak diren itzultzaile horietaz gainera, hainbat itzultzailek eta enpresak ere administrazioarentzako lana egiten dute, zerbitzu profesional gisa kontratatuta.
- Administrazio publikoan egunero-egunero testu corpus handiak itzultzen dira.
- Gehien-gehienak testu juridiko-administratiboak diren arren, beste era askotako testuak ere itzultzen dira: komunikaziokoak, zabalkundekoak, publizitatekoak, jakintza eta jardun esparru anitzetakoak (arteak, kultura, teknikak...)
- Euskararen korpusa normalizatzeko, modernizatzeko eta finkatzeko lanean, berebiziko eragina du administrazioan egiten den itzulpenak:
 - Arlo askotako terminologia sailen hartzailea delako.
 - Hizkera-idazkera formal eta normatiboaren eredu anitzen harrobia delako.
- Itzulpen gehienak gaztelera → euskara norabidean eginak diren arren, gero eta gehiago itzultzen da administrazioan euskara → gaztelera norabidean ere.
- Euskaraz nagusiko edo jatorriz euskaraz jardun nahi duten Administrazio erakundeek (UEMA...) edo erakunde atalek (gizarte harreman handiko departamentuek) testu sorrera elebidunaz edo itzulpenaz baliatu beharra dute herritar guztien hizkuntza eskubide oinarritzako bermatzeko. Nabarmentzekoak dira; onerako, hain suertez; kulturarekin erlazionaturiko hainbat erakunde eta organismo ofizial izatea jatorriz euskaraz sortutako dokumentuen eragile: erakusketa materialak, katalogoak, monografiak, literatur lehiaketak, ikerlanak...
- Administrazio funtzionarioek, batik bat testuak lantzen aritzen direnek, gertutik bizi dute itzulpen esperientzia eguneroko lanean.
- Oinarritzako legeriaren arabera, herri erakundearen eginkizuna da kultura propioa eta kultur ondarea zaintzea eta sustatzea. Hizkuntza herriaren kultur ondasunik behienekoetako denez, herri erakundeei dagokie, besteak beste, hizkuntzaren erabilera zuzena bultzatzea eta hizkuntzaren korpusa garatzen eta estandarizatzen laguntzea. Administrazio hizkerari dagokionez, lantegi horretan zeregin garrantzitsua du itzulpengintzak.

5.2.- Ahuleziak

- Administrazioan itzultzaileek oso era desberdinetan daude kokatuta eta kontsideratuta. Administrazio handietan, oro har, ongi antolatuta eta zerbitzu espezializatu gisa ari dira lanean. Administrazio ertainetan eta txikietan, berriz,

eginkizun anitzetan murgilduta, ez beti antolamendu, bitarteko eta prestakuntza egokiarekin.

- Horren ondorioz , lantzen den eta zabaltzen den hizkuntza ereduak desoreka handiak daude. Oro har eredu administratibo-juridiko egokia, landua eta zehatza sortzen da, euskararen korpus orokorra janzteko, modernizatzeko eta baliagarri egiteko aski egokia, baina horrekin batera badira hizkuntzaren erabilera kaskarreko adibide ugari ere, baztertu beharreko hutsuneak, akatsak eta praktika txarrak eragiten dituztenak.

6.- ITZULPENGINTZA HEZKUNTZA SISTEMAN

6.1. Indarguneak

- Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sisteman D eta B ereduak zabaldu direnetik, ikasmaterialen sorkuntzan berebiziko presentzia izan du.
- Derrigorrezko hezkuntza sistema osorako testu liburu eta ikasmaterialen eskaintza normalizatua eta eguneratua edukitzeko, itzulpengintza bitarteko ezinbestekoa bihurtu da.
- Horren ondorioz, askotan oharkabean bada ere, eredu elebidunetako irakasle-ikasleek (beraz, gehiengo ia erabatekoak) zuzeneko esperientzia pasiboa dute itzulpenarekin.
- Testu liburuez kanpoko ikasmaterial osagarriak egiteko eta norbere material bereziak prestatzeko irakasle askok eta askok zuzeneko esperientzia aktiboa dute itzulpenarekin.
- Etxeko nahiz eskolako lanak egiteko, informazio bilketen ondorioak lantzeko eta abar, eredu euskaldunetako ikasleek zuzeneko esperientzia aktiboa dute itzulpenarekin.
- Zuzeneko esperientzia aktibo hori are nabarmenagoa da internet eta teknologia berrien hedakuntzak aurrera egin ahala.
- Informazio, dokumentazio eta jakintza gaien iturriak gero eta globalizatuago dauden une hauetan, EAEko Hezkuntza Sistemak euskaraz behar bezala funtzionatzekotan, itzulpen esperientzia, itzulpen jarrera eta itzulpen lana ondo bideratzeko ildo estrategiko zehatzak definitu behar dira (zer itzuli lehentasunez, zein hizkuntza edo kultur testuingurutatik itzuli lehentasunez...)
- Euskararen korpus normalizatua herritarren hizkuntz gaitasunean ongi barneratzeko berebiziko eragina du eskolan erabiltzen den euskara ereduak, jakintza alor guztietara hedatzen delako eta era askotako erregistroak lantzen dituelako.
- Ez da ahaztu behar, bestalde, sarritan, ikasmaterialeari dagokienez, itzultzaileak itzuli baino, egokitu beharrean egoten dela, eta horrelako moldatze lanak bestelako prestakuntza mota eskatzen diola itzultzaileari, alegia, jakinduria pedagogikoa ere. Baina egokituriko materialak eskola egoeretan saiatzeko bideak topatzea neketsu gerta daiteke irakasle-pedagogoekin lankidetzan aritu ezean.

6.2.- Ahuleziak

- Itzulpengintza hezkuntza sistemako ikasmaterialetan eta eskola lanetan den oinarrizko elementuetako bat izan arren, ez da inoiz berariazko hausnargai izan irakaskuntzan. Esan daiteke ikasleek ez dutela itzulpengintzaren erreferentzia sendorik barneratzen, itzulpenari buruzko topiko solte bat edo beste kenduta, ikaskuntza osoan zehar.

- Testuliburu eta ikasmaterial itzuli ugari horien artean, behar liratekeen kalitatea eta zehaztasuna ez dituzten asko erabili ohi da ikasgeletan. Oinarri-oinarrizko ikas-tresna direla kontuan hartuta, euskarazko material didaktiko guztiak —itzuliak izan nahiz euskaraz sortuak izan— kalitate osoarekin eginak izatea zaindu behar da.
- Irakaskuntzan maiz oharkabean gertatu ohi den fenomeno da ustez euskaraz sortuak diren material asko berez itzulpen direla, neurri handi batean bederen.

7.- HAUSNARKETA

7.1.- Sektoreko eztabaidagaiak, erronkak eta arrazoiak

Gaur egun itzulpenaren gainean gogoeta egitea ezin atzeratuzko auzia da. Garaiok eta munduaren egoerak berak behartzen gaituzte hartara. Ez gara alferrik bizi, bada, komunikazioaren eta informazioaren sasoian. Azken urteotan kultur elkarrizketa eta herrien arteko trukeak gertaera nahitaezkoa bezain arina bihurtu dira. Zertan gogora ekarririk ez dago egoera orokor hori are nabarmenagoa dela Euskal Herriaren antzera, egunero-egunero hizkuntza batean baino gehiagotan bizi den herri txiki batentzat. Itzulpen politika egokia diseinatzea hil edo biziko auzia izan ere daiteke hizkuntza hartzailearen ikuspegitik.

Aho betean aldarrikatzen dugu munduratzea, euskal poeta ezagun lehenak esan zuen moduan, plazara jalgitzea, aldea globala hedatuz joatea beharkizuna nahiz eskubidea direla, globaltasun horretan gizakirik urrunen eta galduena auzoko ez ezik, entzulea, mintzakide eta hartzaile ere izaten dugulako. Itzulpenak sareak ehuntzen ditu giza kulturen eta hizkuntzen artean. Nonahiko eta noiznahiko egin da itzulpengintza. Atzetik dakargun altxorra ahaztu barik, begi aurrean zabaltzen zaigun alor hedatsua ondo begi aurrean.

Itzulpengintzaz ia mundua mundu denetik arduratu dira jakintsuak, hainbat alor abiapuntutzat hartuta: filosofia, semantika, semiologia, literatura, teologia, soziologia, antropologia edo traduktologia bera. Azken urteotan, ekonomiak, administrazioak, ikus-entzunezkoek eta industriak ere begia jota diote. Ezin bestela gertatu, XXI. mendean erakunde publikoak eta industria pribatuak itzulpengintzak eragiten dituen giza eta gauza baliabideen erabileraren garrantziaz ederto batean konturatuta daude eta. Ikerlari eta adituek diotenez, gaur egun dena da itzulpena. Edo, bestela adierazita, itzuli beharra gizakiaren egoerarik berezkoena da. Gizakiak eta gizarteak munduan dagokien tokia topatzen dute itzulpenari esker. Pentsalarien aburuz, itzulpena giza kondizioaren metafora da, ezegonkortasuna, mugimendua, negoziazioa eta bidaia delako. Itzulpen berbak berak adieraziaren aldetik mugimendua dakar gogora hizkuntza gehienetan. Mugimendua, bilakabidea, aurreramendua bere-berezkoa du lanbide honek.

Itzulpengintzaren dinamikotasun hori, halere, gizartean, oso bestela kontsideratzen da, hau da, itzulpenak erreprodukzio fidela izan behar du, aldaki zehatza, jatorrizkoaren kalko mudatzen ezina. Jatorrizkoak, beraz, finko, estatiko, egonkor, mugiezin eta hila behar du. Baina azken ikuspegi horrek zama historiko handiegia daroa aldean, kontzeptua bera ideal bezain eskuraezin delako. Itzulpenak beharbada ezingo du inoiz lortu erabateko baliokidetasunik, halere, gero eta hurbilago dago garaiotan hartzaile bakoitzaren komunikazio beharrak asetzetik. Itzultzea ez da, besterik gabe, jatorrizkoa transkribatzea, testuari bizi berria ematea, kultura eta hizkuntza hartzaileen ekarria eranstea baizik.

Itzulpengintza hizkuntz eraldatze automatiko hutsa baino kulturen arteko negoziatze trinkoaren engranaje da, pentsaeren eta herrien arteko zubi, kultur trafikorako bide, giza sormenaren ekarri berrietarako ate. Izate askotariko horiek guztiek, zertan esanik ez, halako mesfidantza moduko bat sortu ohi dute agintarietan: aire berri eta iraultzaileen ekarle izan da itzulpengintza historiaren bilakabidean. Itzulpena eta botere sistemak elkarri loturik daude eta, batez ere, botere sistema horien

jokabidearekin, hau da, politikekin. Beraz, heldua da garaia, ezbairik gabe, itzultzailearen zehaztasun (falta) eta (txarto) eginak mintzagai erabiltzeari uzteko eta itzulpengintza aldarrikatzeko makropolitika kultural moduan, gizarteak eraikitzeko osagai noraezeko gisara, gizadia sendotzen edo aldatzen laguntzen duen aldetik, gizaldeak elkarren errealitateen aurrean jartzen dituzenez gero.

Itzultzea ez da, ondorioz, jatorrizko testua edo kultura itzultzea, mezua hartzaileari modu jakin batean, eta ez bestela, helaraztea baizen. Inoiz ez da ezarri- ezarian eta mendekotasunik gabe itzultzen, une eta kultura partikular batzuetan gauzatzen da itzulpen lana, behar eta egokiera bereziek baldintzaturik, hartzaile jakin bat gogoan dela, jatorrizko kulturarenganako eta testuarenganako joera kontestualizatua eta helburu zehatz-zehatza izanda. Itzulpena ez da huts-hutsean gertatzen, gertatu munduan gertatzen da, areago, munduari erantzuteko eskatzen diogu. Nahitaez, mundua etengabe berrosatzen laguntzen du itzultzeak. Mundua bilakatuz doa itzuli ahala. Gizakiaren antz-antzerak.

Gizarte batek nolako begirunea dion itzulpengintzari, halatsu egokituko ditu konbentzioak, egiturak eta erakundeak. Itzulpengintzari duen garrantzia aitortuz gero, gizarteak mundua hobeto ulertzeko moduan egongo da, barne eta kanpo istiluak egokiro bideratzeko bidean jarriko da.

Segur aski egun ezin da globalizazioaz eta kultur askotarikotasunaz mintzatu itzulpengintza giza jarduerarik gehienak kutsatzen dituen jazoeratzat hartzeke. Nekez ekarriko dugu aldea globaleko gertakaririk harira itzulpen motaren bat tartean ez dela. Ekonomi eta administrazio egituretan askotan garrantzi eta zama ukaezin eta ikaragarriak ditu. Ikusi besterik ez dago merkatura datorren ezein produkturen gaineko dokumentazioa (paperezkoa zein bestelakoa) tokian tokiko hizkuntzetara ekarri beharrak zenbateko kostuak sortzen dituen. Baina merkatuak hala agintzen duela etsitzen badugu, zer ez dugu egin behariko giza sormenaren, artearen munduratzeko autu erabiliz gero? Zelan ez ahalegindu gizakion kultur ekarriak itzultzen?

Itzulpenaren arragoan kulturak, diskurtsoak eta hizkuntzak urtzen dira eta bat egiten. Itzulpen ekintzak, bestalde, idazketa hibrido eta transkulturalak sortzen ditu. Aniztasuna oinarri, batasuna dakar itzulpenak, baina ez batasun zapaltzaile eta suntsitzailea, ez, batasun jori eta ugaria, zati ezberdin askok eratua. Globalizatzea ez delako hizkuntza bakarra, pentsamendu bakarra gailentzea, horiek denok elkarrengana itzultzeko abagunea baino. Bizitza eta obra itzuliek batasuna eta adiskidetzeko dakartzate, nahiz eta itzulpengintza, berez, gatazka, negoziazio, hegemonia eta menderatze giroan sortzen den. Zenbat eta beharrezkoago izan elkarri aditzea, elkar hartzea, orduan eta premiazkoagoa itzulpengintza. Esatea ere bada giza gatazka gehienetan itzulpen arazoren bat dela tartean. Bestea itzuli beharrean egongo gara harekin hartu-emanetan hasiko bagara. Itzultzailearen lana horixe baino ez da sarri ere sarri: jatorrizkoak etengabe sortzen dituen gatazkak ebazpidean jartzea.

Itzultzea inoiz ez da alfer lana, eta itzulpengintzak aro globalean hala dela agerian jarri ez ezik, globalizatzaileen eta globalizatuen egoeren aldeak sendotu edo ahuldu ere ditzake, erresistentzi guneak sortzeko aukera eskaintzeaz gain.

Zer esanik ez dago, itzulpengintza eta teknologia berriak beste ezer baino elkarrengokoak dira: internet, ikus-entzunezkoak, softwarea eta mundu birtuala tokian tokiko hizkuntzetara itzultzeko premiasuna elkarren beharreko eta zordun dira.

Internet Babel berria da. Beraz, ia gune mitiko halako bat. Internetek, beste ezer baino areago, azala ez ezik, edukia bera itzultzeko ere eskatzen du.

Inoiz baino baitezpadakoagoa da, hala bada, itzulpengintzaren inplikazioen gainean atzera ere gogoeta egitea. Hizkuntza batera itzultitako lan mota guztiak, nahitaez, herri, hiztun eta kultura hartzaileen ondare bihurtzen direlako, ezari-ezarian eta modu atzeraezinezkoan.

Itzulpengintzak, halere, beste lanbide bi ditu pare-parean anaia-arreba belauneko: interpretazioa eta jorraldia, zuzenketa. Egun ahozko eta ikus-entzunezko korpus eta edukiak —itzuliak ere, jakina—, garrantzia irabaziz doaz. Beste inora jo barik, horra hor hedabideak: inoiz baino bideratzen gaitzagoak lirateke itzulpenik ezean.

Horiek guztiak horrela, ezin ahaztuzkoa da, bestalde, itzulpenak genero, klase eta leinuen arteko ezberdintasunak leuntzeko bidean jar ditzakeela pertsonak.

Itzulpengintza etorkizuna diseinatzeko bidaide eskergabea da, kontzeptu eta formulazio politiko berriak ontzen esku emateaz gain, herritarrak horietarako prestatzen eta trebatzen ere lankide diharduelako.

Euskal Herriak, jakina, herri elebakarra ez den aldetik, itzulpengintza oinarritzko zutabe du, eta hala erakutsi du itzulpengintza eta interpretazioa unibertsitate ofizialera eroanda. Lehenengo urratsa da, xumea, bai, baina ezinbestekoa mende berrirako itzulpen politikoa diseinatzerakoan.

Bestalde, hizkuntz eta kultur planifikazioen aldetik, ukaezinezkoa da ez dagoela horrelako politikarik diseinatzerik itzulpengintzaren ekarria ahaztuta: bateko, normalizazioa eta itzulpena elkarren arerio ez direlako, besteko, jatorrizko kultur produkzioa kanpora eroan barik eta kanpoko ekarri itzulia bereganatzeke, gaur egun edozein kultura isolatuan, ia hutsaren hurrengo gerta daitekeelako.

7.2. Helburuak eta lehentasunak

7.2.1.- Itzultzaileen gainekoak

- Itzultzaileak, zuzentzaileak eta interpreteak alor berezietarako trebatzeko plana prestatzea.
- Itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen zerbitzuak herritar sektore berezietara (gutxiengoak, etorkinak, gorak, itsuak...) heltzeko programa, itzultzaile-interpreteak gutxiengoei ere zerbitzu emateko birziklatzeko laguntzak abiarazita.
- Itzultzaileak informazio eta komunikazio teknologia berrietan etengabe eguneraturik izatea.
- Itzultzaileon etengabeko prestakuntza antolatzea.

- Itzultzaileon lantresnak eguneratzeko plana eratzea eta abiaraztea.
- Itzultzaileon gizarte estatusa hobetzea.
- Beste hizkuntza batzuetan trebatzeko itzultzaileentzako laguntzak arautzea.
- Itzulpen eskubideen kitapenak arautzea.
- Itzultzailearen copyrighta argitalpenetan agerraraztea.
- Ikus-entzunezkoetan itzultzailearen berri jasotzea.
- Itzultzailearen egile eskubideak eta eskubide moralak zaintzeko neurriak jartzea.
- Testu itzuliaren osotasuna errespetaraztea.
- Salmenta eta tirada datuak itzultzaileari jakinarazteko bideak jartzea.
- Beren kabuz diharduten itzultzaileen gizarte segurantzaren eta babes sozialaren hobetzeko laguntzak eratzea.
- Administrazio eta bestelako itzultzaileen estatusa unibertsitateko ikasketen ofizialen mailan jarri joatea, administrazio ofizialak ere direlako hainbat testu motaren sortzaile.

7.1.2.- Itzulpengintza bera

- Bitarteko eta epe luzeko itzulpen politika definitzea: helburuak, epeak, baliabideak.
- Itzulpenaren Fundazioa sortzea eta itzulpengintzaren gaineko dokumentazio zentroa eratzea.
- Itzulpen eta itzul ikerketa beken sistema antolatzea.
- Ekimen pribatuak plazaratzerik ez dituen itzulpen interesgarriak argitara emateko Argitaletxe (Nazional)a abiaraztea.
- Pentsamendu eta literatur lanik garrantzizkoenak itzultzeko epe luzeko plangintza eratzea (egungo Literatura Unibertsala zabaltzea).
- Itzulpenen katalogazio egokia egitea eta horretan laguntzeko beharrezko tresna informatikok garatzea.
- Euskal Itzulpenaren Katalogoa (egun EIZIEk hasita du eta) osatzea, eguneratzea eta etengabe elikatzea, barne hartuko dituela euskaratik beste hizkuntzetara aldatutako lanak ere.
- Unean-unean itzultzen ari diren lanen datu basea sarean jartzea, ahaleginak bikoiztu ez daitezen.
- Euskal Itzulpenaren gordailua/liburutegia antolatzea eta sarean euskarri digitalean jartzea.

- Euskaraturiko material guztien aurkibidea prestatzea, alegia, Katalogoak dena delakoagatik har ezin ditzakeen lanen katalogoa.
- Euskal liburuen itzulpen laginen katalogo elektronikoa abiaraztea.
- Diru publikoz lagunduriko itzulpenak korpus edo memoria bihurtzea eta sarean jartzea.
- Diru publikoz lagunduriko denetako materialen ondoriozko itzulpen memoriak, korpusak eta glosategiak sarean eskuragarri jartzea.
- Erakunde publikoen menpeko kontsultarako hizkuntz baliabideak itzultzaileen esku jartzea.
- Itzulpen memoriak *on-line* (internetez) kontsultatzeko datu biltegia eta aplikazioa garatzea, itzultzaile ez direnek ere, programa berezirik gabe, corpus itzuliak kontsultatzeko aukera izan dezaten.
- Itzulpen memoriak eskualdatzeko protokoloa diseinatzea eta abiaraztea.
- Euskal itzultzaile guztientzako "intraneta" edo sare berezia abiaraztea.
- Aplikazio informatikoak euskaratzeko eta Euskal Herrian garatutako produktuak beste hizkuntzetara itzultzeko programa.
- Itzulpengintzaren gaineko tesi eta ikerlanak sustatzeko eta sarean eskuragarri jartzeko egitasmoa diseinatzea.
- Euskarara edo euskaratik itzultzen duten erakundeen baliabideak bateratzeko eta elkar hartzeko plana.
- Administrazioek euskaraturiko administrazio material eta produktuen izendegia kontsultatzeko gune berezia antolatzea.
- Jende aurreko kultur ekitaldietan eta erakunde ekintzetan interpretazio saioak egiteko gutxienezko baldintzak segurtatzeko plana.
- Interpretazio eta itzulpen sozialetako gutxienezko baldintzak arautzea.
- Itzulpen kontratuak arautzea eta arbitrai mekanismoak ezartzea.
- Euskal Herriko literatur sariak bi hizkuntza ofizialetara zein beste hizkuntzetara itzultzeko sistema abian jartzea.
- Hedabideetarako itzulpen baliabide arinak antolatzea.
- Ikus-entzunezkoetan eta teknologia berrietan edukiak euskaratzeko plana antolatzea.
- Kultur guneak (biltzar jauregiak, antzokiak...) errotulazio sistemez eta interpretazio kabinez hornituz joateko plana diseinatzea.
- DVDetako azpigituluak euskaratzeko laguntza plana abiaraztea.

- Testu dramatikoak (antzeztekoak, ahozkotasunean oinarriturikoak) itzultzeko edo egokitzeke ekimen berezia diseinatzea.
- Itzulpen argitaratzaile eta ekoizleentzako laguntza sistema (itzulpen eskubideetan laguntzea) eratzea.
- Itzulpen ikasketa gradu ondokoak abiaraztea unibertsitatean.
- Ikasmaterial itzuliak hedatzeko programak eta EIMA koordinatzea.
- Ikasmaterial itzulien gordailu eta dokumentazio zentroa sortzea.
- Testu itzuliak hezkuntzan zabaltzeko eta behar bezala balioetsarazteko programa.
- Itzulpengintza hezkuntza programa ofizialetan eskaintzea zehar lerro moduan edo osagarri gisa.
- Euskalkietara itzultzeko (edo moldatzeko) programa berezia antolatzea.
- Testu itzuliak ere jasotzea irakur zaletasuna sustatzeko programetan.
- Euskal Hezkuntza Sistemako irakasleen birziklatze programetan itzulpengintzari buruzko oinarritzko trebakuntza sartzeta.
- Euskal Hezkuntza Sistemako curriculumean itzulpengintzari buruzko fitxa didaktikoak gehitzeko ekimena (mailakatuta, DBHko bigarren ziklorako eta Batxilerrerako).
- Testuliburu eta ikasmaterialak euskarara ongi itzulita eta eguneratuta edukitzeko berariazko plangintza egitea.
- Erakunde ofizialek lagundutako kultur adierazpide eta ekoizkin ahalik eta gehien euskaraturik ere eskaintzeko bideak jartzea.
- Erakunde ofizialek lagundutako kultur adierazpide eta ekoizkin euskarazkoak beste hizkuntzetan ere emateko bidea jartzea.
- Estatuko tokian tokiko hizkuntza ofizialekiko itzulpen eta elkartruke programak abiaraztea.
- Testu itzuliak hedabideetan areago agerrarazteko (kritikak, artikulak...) programa abiaraztea.
- Publizitate kanpainak itzultzeko edo egokitzeke programa berezia abiaraztea.
- Eguneroko zereginetan itzuli beharra izaten duten profesionalen (irakasle, zientzialari, kazetari...) ikasketa programetan itzulpen teoria eta praktika sartzeta edo haienzako ikastaro bereziak eskaintzea.
- Euskal zinpeko itzultzaile eta interpreteen kidegoa antolatzea.
- Euskarara eta euskaratik itzulitako liburuak liburu ferietan egotea bermatzeko programa sendotzea.

- Itzulpena jasotzen ez duten sari literarioetan itzulpenak ere sariztatzeko bideak jartzea.
- Kalitate arauak itzulpengintzan zabaltzeko programa hedatuz joatea.
- Euskal Herrira datozen etorkinentzako oinarritzko materialak itzultzeko programak abiaraztea.
- Euskal etxeak euskal itzulpengintza hedatzeko programetan sartzea.
- Euskararen Institutu ofizialean itzulpengintza atal moduan jasotzea.
- Euskal Itzulpengintzaren Liburu Zuria prestatzea, sektorea zertan den jakiteko datu fidagarriak eskuratzeko.
- Euskal Herrian ezein hizkuntzatan diharduten itzultzaile guztien errolda egitea.
- Idazle argitaratzaile, ekoizle eta bestelako eragileekin batera produktu itzuliak sustatzeko ekintzak antolatzea.
- Administrazioiko itzulpengintza, hizkuntz eta komunikazio fenomeno eta esperientzia berezia eta garrantzitsua den aldetik, hobeto antolatzeko saioak bultzatzea.
- Administrazio elebiduna bermatzeko behar diren giza baliabideak aztertzea, ongi prestatzea eta indartzea; itzultzaileen baldintza profesionalak homogeen egitea, betetzen duten hizkuntza eta kultur eginkizun garrantzia kontuan.
- Euskararen korpus juridiko-administratiboa finkatzeko, sendotzeko eta eguneratzeko, berariazko glosategi terminologiko bateratuak sustatzea eta eskuragarri jartzea.
- Testugintza juridiko-administratiboa, eta bereziki testugintza arau-emailea, behar bezalako kalitatez, bateratasunez eta zehaztasunez egin dadin eta, hortaz, baliagarria eta segurua izan dadin, erreferentziatzko oinarritzko legeria euskaratuta eta egunean edukitzea.
- Itzulpengintzarekin zerikusia duten erakunde, elkarte eta eragile guztiak koordinatzeko mahaiak abiaraztea.

7.3.- Ekintza lerroak

7.3.1.- Proiektuak eta ekintzak epe laburrean eta bitartekoan.

- Itzulpen politika diseinatzea.
- Itzulpenaren fundazioa edo etxea eratzen hastea.
- Itzulpen katalogo digitala eguneratzea.
- Literatura unibertsala bilduma hedatzea, genero guztiak barne hartzeko.

- Teknologia berriak itzultzaile guztiengana helarazteko laguntza programa indarrean jartzea.
- Itzulpen kontratu, eskubide eta tarifak arautzea.
- Gradu ondoko itzulpen ikasketak arautzea eta abiaraztea.
- Zinpeko itzultzaile-interpreteen kidegoa eratzea.
- Kalitate arauak itzulpengintzara hedatzeko programa.
- Itzulpenaren Liburu Zuria prestatzea.
- Itzultzaileen errolda egitea.
- Itzulpengintzaren baliabideak euskal kulturaren adierazpen guztiak munduratzeko bidean jartzeko plana diseinatzea.
- Hizkuntz normalizazioa eta itzulpengintza osatzeko eta elkar hartzeko plana prestatzea.
- Erakunde publikoen mendeko itzulpen zerbitzuak behar bezala koordinatzeko plana diseinatzea eta abiaraztea, baita baliabideak era digitalean eskuragarri jartzea ere.
- Itzultzaileen gizarte estatusa hobetzeko ekimena abiaraztea.
- Beren kabuz diharduten itzultzaileentzako gizarte laguntzen sistema egokitzekeo programa diseinatzea.
- Itzulpena argitaratzeko dirulaguntza programa berezia abiaraztea.

7.3.2. – Oztopoak eta horiek gainditzeko bideak

Arazo nagusietako bat dugu, zertan esanik ez, euskara (eta itzulpena, beraz) administrazio aldetik, hainbat erakunde eta botere mailaren erantzukizuna izatea. Hainbat administrazio eskudun izateaz gain, zenbaitetan administrazio beraren baitan itzulpenarekin zerikusia duten ekimenak alor ezberdinen mendean egoten dira eta neketsu gerta daiteke haiek batera ibilaraztea. Eragozpen da, baita ere, eta ukatzerik ez dago, euskara Europan estatus ofizialaren jabe ez izatea, nahiz eta gauzak zeharo aldatu daitezkeen, onerako, laster batean izangai diren nazioak Europako Batasuneko kide bihurtzen direnean. Baina txosten honetan proposatzen denaren ildotik, erakunde ofizial eta pribatuen babesa izango lukeen Itzulpenaren Fundazioa (edo Letren Etxea edo dena delakoa) egoera hori berori gainditzeko bidea izan liteke, mugakizun administratibo asko gainditu bailitzake horrelako azpiegitura izanda.

Jakina, itzulpengintzaren zati garrantzizko bat; euskal kultur produkzioaren atal handi batzuk legez; administrazioaren baliabideen mendean da eta aldi berean da gune indartsua eta ahulezia. Indar gunea da apurka-apurka administrazioek ahaleginak arautu eta batera bideratzeko tresnak dituztelako. Ahulezia da ekimen pribatua, oraingoz, administrazioen oso mendean dagoelako.

Bestalde, ekonomiaren aldetik zehazten gaitza da sektoreak egun zenbateko eragiten duen dirutza, baina EIZIEko kideen bitartez heltzen diren informazioen arabera, itzulpengintza, bere apalean, enplegu sortzaile ere gertatzen ari da, beraz, aberastasun kreatzailea. Halere, sektoreak zenbaterainoko eragin ekonomikoa duen nekez argituko da Liburu Zuria erredaktatu gabe.

Jakina, txosten honetako helburuetako batzuk besteak baino eskuragarriago dira itzultzaileen elkarteak, dagoeneko, baten batzuen batzuk abiarazita dituelako zenbait erakunderekin elkarlanean.

Bestalde ezin uka daiteke, kostu ekonomiko handia dakarrelako, interpretazioari, ahozko itzulpenari merezi duen tornua emateak kostu handia sor dezakeela, baina ezinbestekoa da, kultur eta hizkuntz normalizazioen aldetik, kultur zerbitzuak beti ere, gutxienez, bi hizkuntza ofizialetan eskainiko badira. Apurka-apurka, azpiegitura teknikoak ezartzeaz gain, zerbitzua eskaintzera jo beharko da. Horra hor, bestalde, ikus-entzunezkoak azpidazteko proposamena edo antzokiak titulatzekeo sistemez hornitzeko proposamendua.

Itzulpengintza izango bide da teknologia berrien eragina eta onurak gehienik jasotako alorretako bat. Gune indartsua izanik alderdi hori, oztopo ere bihurtzen da erakundeetako itzulpen zerbitzuak eta banako itzultzaileak etengabe inbertsio handi samarrak egitera beharturik daudelako (software berezia, hardware ahalmentsua, ADSL...). Baina, bestalde, oinarrizko azpiegitura teknikoa eskuratutakoan, sareko baliabideen bitartez gero eta kultur eduki gehiago itzultzekeo moduan izango dira itzultzaileak, ekoizmena areagotzen duten tresnei esker. Ez da ahaztu behar Euskal Herria, kanpoko adituen iritziz, itzulpenarako eremu pribilegiozkoa dela, bi hizkuntza erroto desberdin elkarren ondoan bizi direlako estatus ofizialaren jabe. Ondorioz, aurrerapen teknologikoen erraztasunak baliatu beharko dira, baita itzulpenaren mesedean doazen teknologietan inbertitu ere, horrek beste alor guztien abantzamenduan eragina ere izango duelako. Azken buruan, informatikaren bilakabideari esker, laster itzulpena neurri handian automatizatzekeo gauza izango dira itzultzaileak eta, ondorioz, orain arte gutxiago landutako bide eta ekimenei ekitekeo moduan egongo dira.

Bestalde, nabarmen-nabarmena da irakaskuntza, administrazioa eta ekimen pribatua (itzultzaileen elkarteak, bestelako fundazioak, denetako erakundeak) itzulpengintzaren inguruan elkar hartzekeo moduan jartzea neketsu gerta daitekeela, baina, segur aski ez da halako zail gertatuko denek Euskal Herriko itzulpen politika (lehentasunak, helburuak, baliabideak...) definitzen parte hartuz gero.

KONTSULTA MATERIALAK

- Hainbat egile; Senez aldizkaria, EIZIEk argitaratua, sarean ikusgai (www.eizie.org).
- Hainbat egile; *Informe sobre la situación del traductor de libros en España* in Vasos Comunicantes, 25, 2003.eko udaberria (Interneten: www.acett.org)
- Hainbat egile; Libro Blanco de la Traducción en España, 1997, Cedro.
- DEL OLMO, Karlos; IMAZ, Maite; MONTORIO, Bego *Administrazioko itzultzaileak: lehena, oraina eta geroa* in Jakin 111. zkia. (1999), 11-40. (<http://www.jakingunea.com/grafikoak/aldizkaria.htm>)
- MENDIGUREN, Xabier; Euskal itzulpenaren historia laburra. 1995, Elkar.